

## **FORU ALDUNDIAK ETA MERKATARITZA GANBERAK EGINIKO AZTERLAN BATEN ARABERA, HAMAR ENPRESA BERRITZAILETIK SEIK BEREN HASIERAKO HELBURUAK BETETZEN DITUZTE**

- Beren negozio planetan berrikuntza sartzen duten konpainiak enpresa sortu berriak dira, zerbitzuen sektorean lan egiten dutenak, esportatzaileak eta merkatuan sartzeko edo hazteko fasean dauden produktuak dituztenak.
- Gehien baloratzen diren efektuak dira kalitate hobea lortzea eta produktu edo zerbitzu gama handitzea.

*Bilbo, 2013ko urtarrilaren 11a.* Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza Ganberak BARRIXE-BIZKAIKO BERRIKUNTZA BEHATOKIAREN BIDEZ eginiko azterlan batek jakinarazi du 10 enpresa berritzailetik 6k beren hasierako helburuak betetzen dituztela. Norabidea 2012k, Bizkaiko enpresek beren negozio planetan berrikuntzari ematen dioten garrantzia aztertzen duen txostenak, dio kontsultatutako enpresen %66ren iritziz ongi hartutako erabakia izan dela. Enpresek fakturazioa, marjinak edo irabazi garbiak baino gehiago baloratzen dute kalitate hobea eta produktu edo zerbitzu sorta zabala izatea.

Bizkaiko enpresa berritzaileak zerbitzuen sektoreko konpainia sortu berriak dira, esportatzaileak, merkatuan sartzeko edo hazteko fasean dauden produktuak dituztenak eta erantzukizun postuetan 35-45 urte bitarteko erdi edo goi-mailako unibertsitate titulatuak dituztenak. Prozesuetan sartzen dituzten berrikuntzak funtsean teknologikoak dira eta beren igurikapenen betetze-maila handia da.

Prozesu berritzaile honen onurak gorabehera, berrikuntzak egiten dituen Bizkaiko enpresen kopurua jaitsi egin da azken lau urteotan, eta halaber, epealdi horretan murriztu egin da berrikuntza estrategia jarraitu edo estruktural bezala aplikatzen duen enpresa kopurua. Denbora horretan bi enpresatik batek ez du inolako elementu berritzailearik sartu bere kudeaketan. Prozesu hori geldiarazten duten arrazoi batzuk dira merkatuaren egoera, berrikuntzaren kostua edo ondasun eta zerbitzu berritzaileen eskaintza falta.

Norabidea 2012 txostenak dioen bezala, Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak elkarrizketatu dituen hamar enpresetatik lauk eskuarki kolaboratzen dute beste sektore batzuetako konpainiekin, bezeroekin edo ekipo eta teknologia hornitzaileekin produkzio prozesuak berritzeko orduan. Lankidetzeta hori ballagarria da enpresen %44,8ren iritziz; %23,8k, berriz, nahiago du erronka horiei bakarrik aurre egin.

Azterlanean argi ikusten da laguntza publikoak gero eta garrantzitsuagoak direla berrikuntzan: azken urtean 10 konpainia berritzaitetik 4k erabili dituzte erakundeek enpresa berritzeko prozesuaren kostuak ordaintzeko eskaintzen dituzten bideak.

Txostenaren edukia ezagutu ondoren, Imanol Pradales Ekonomi Sustapeneko diputatuak gogorarazi du Foru erakundeak garrantzi handia ematen diola enpresetako berrikuntzari. Pradalesek azpimarratu du bere Sailean lau eurotik bat atal horretara zuzentzen dutela.

Bestalde, Bilboko Merkataritza Ganberako presidente José Ángel Corresek uste du berrikuntza erreferentziazko termino bihurtu dela gaur egungo hizkeran eta hori ez dela kasualitatea. Hark dioenez, bizi dugun une honek prozesu asko azkartu ditu, fenomenoak globalizatu ditu, lan egiteko moduak eraldatu ditu eta aurrerapenaren erdigunean jarri du ezagutzak aukera eta aukerak emaitza positibo bihurtzeko gaitasuna.

Corresen arabera, testuinguru honetan berrikuntza ez da moda bat, baizik eta premia bat, lehiakortasuna lortzeko aldagai erabakigarri bat.

Web orrian osorik kontsultatu daiteke *Norabidea 2011: Berrikuntzak Bizkaiko enpresetan duen garrantziari buruzko inkesta*: [www.barrixe.com](http://www.barrixe.com).